




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—:	IX Urtea	1927'ko Otsaila	98 Zenbakia	:—:
-----	----------	-----------------	-------------	-----

Seigaren eta bederatzigaren aginduak

Si quis autem templum Dei violaverit, disperdet illum Deus. Templum enim Dei sanctum est, quod estis vos. (I Cor. III-17.)

Ilhork Jaungoikoaren jauretzea (Jaunaren etxea) zikinduko balu, Jaungoikoak ondatuko luke. Jauretzea santua bai da, ta ori zuek zerate.



Blagindu auetan garbitasuna agintzen zaigu. Lenengoa naikoa ez balitz bezala, gudan nai duan garbitasuna adirazteko, bigafen ori eman digu. Seigafenak dio: loikeririk ez dezu egingo eta bederatzigafenak: *Besteren emazterik ez dezu nai izango.*

Jaungoikoak osotara garbi nai gaitu. Garbi bafendik, soñean bezalaxe; garbiak, ez itxurez baka-fik, baizik baita izatez ere.

Animako garbitasuna, ez du gorputzekoa baño gutxiago nai; ori adirazi nai digu bederatzigafen aginduz.

«Jaungoikoa gogo da (gorputz-gabe), ta gogoz ta egiaz afen esana betetzen dutenak nai ditu Berak» esan zion Jesus'ek Samariafari. Anima garbia, gorputz garbian; alakoak nai gaitu Jaungoikoak bere seme-alabak.

Bi aginduok guziok eta beti beartzen gaituzte, edo bizitza guzian.

Garbitasuna, ondasun aundia.

Garbitasunak (1) ematen dio gizonaren animari bere gorputzaren jabetasuna; gorputza anima garbiaren mende dago.—Animaren indafak ez ditu gorputzak lotzen edo ondatzen, anima garbitasunean bizi den artean.—Garbitasunak gorputzari ere edertasun aundia ematen dio.—Garbitasunak gaztea maitagafi egiten du; ezkondua zintzo ta etxekoi, ta zafa agurgafi ta goragafi.—Garbitasunak zaintzen du ta ematen dio kristauari izenik onena, etxe bati zeruko usai gozoa, gazteriaz egiten du lorategirik edefena, ta elizaz Jaungoikoaren baratze gozatsua.—Garbitasunak sendotzen ditu etxeak, eta auetan eta efietan bafatzen ditu oitura goragafiak, pakea, osasuna eta zorion ugari.

Beaferzkoa da garbitasunean bizitzea.

G. Zer agintzen digu seigafen aginduak?—Ditugun gogapen, itz, eta egi-teetan garbiak eta kutsugabeak izateko, agintzen digu seigafen aginduak.

Pablo Apostolu santuak adirazten digu zergatik gauden beartuak garbitasunean bizitzera bere epistoletan. Tesalonikafai esaten die: (2) Jaungoikoaren naia (borondatea) da, zuek santuak izatea ta loikeritik baztarte ta zuetako bakoitzak bere gorputzeko ontzia santutasunean eta itxuronean zaintzen jakitea: ez ordea, grinetatik sortzen diren naikeri tzafetan, siñisgabeak bezala... Jaungoikoak santutasunerako deitu zaituzte-ta, ez lizunkerirako.

Otarako bataiatu giñen eta ofen bidez Jaungoikoaren aur, Jesukristoren gorpuzki (gorputz-puska) ta zerurako efege-efegiñagai egiñik gelditu giñen.

Gure animaz landa, gorputza ere Jaungoikoari eskeñirik eta santuturik geldituak bai gera. Baño entzun Pablo Apostolu deunari: «Ez al dakizute zuen gorputzak Jesukristo'ren gorpuzki dirala?» «Ez al dakizute zuen gorputzak Espiritu-Santuaren jauretxe (Jaunaren-etxe) dirala, ori zuekin bizi dala, ta Jaungoikoak eman dizutela ta etzeratela zuen buruen jabe?» (3)

Eta beste leku batean dio: «Jaungoikoaren jauretxea iñork zikintzen ba-du, ordea, alakoa Janngoikoak ondatuko du. Jaungoikoaren jauretxea santua dalako, ta ofela zerate zuek.» (4)

Jaungoikoak gu bere etxeko, bere aur eta bizileku egin gaituen ezkeroz, ez dezakegu aztu nor geran, etzagun egin gure aunditasunari ez dagokionik.

Alde askotara galdu diteke garbitasuna.

Seigafen aginduak debekatzen dizkigun gauza guziaz galtzen da garbitasuna.

G. Zer debekatzen digu seigafen aginduak?

E. Gogapen, itz-egite, begiratze, irakurtze ta jolasketa lizun eta itsusiak debekatzen dizkigu seigafen aginduak. (B. Kl).

(1) Garbitasunaz itzegitean nai degu adirazi garbi dala Jaungoikoaren begietan gauza itsusirik egiten, gogoratzen, nai izaten, begiratzen, edo ikutzen (ukitzen) ez duana.

(2) Tesal. IV-3 eta ufengotan.

(3) I Cor. VI-13.

(4) I Cor. III-17.

1.^a Gogapen edo gogorazio, burutazio, pensamentu gaiztoz pekatu egiten da, oartzen danean bat gogorazio gaizto oietan dagola bere burua ta jakiñik gaiztoak dirala, ala ere beroietan naita egoten ba-da oraindik.


Baño edozein gogorazio edo burutazio gaiztoz, ezta seigafen mandamentua austen; ortarako, gogoratzen diran gauzak, gauza lizun edo itsusiak izan bear dute. Geiago oraindik. Naiz ofelako gogorapenak burura etofi. zer gogoratzen ari zeran sumatu artean, ez dezu pekatu rik, sumatu orduko kentzera egin ezker, ez dezu, ba, ezer estutzeko.

Su-txingafa bezala dira bururapen itsusiak. Esku gañera edo soñeko gañera orduko itzaltzera egiten dezu; alaxe beargogorapengaiztoakin. Sugeari ez diozu uzten zurimizto pozointsua sartzeraño, baizik ondorra orduko il egiten dezu. Berori egin burutazio itsusiakin ere.


2.^a Gogoz edo naikeri itsusiz ere galtzen da animako garbitasuna; ta ori gertatzen da, itsuskerien bat egiteko gogoari (deseoari) biotzean lekua ematen ba-zaio; naiz iñoiz egitera ez jafi. Jesus'ek zion: «biotzetik ateratzen dirala burutazio gaiztoak... loikeriak eta oiek zikintzen dutela gizona» (Matth. XV-19). Animaren afak dira gogo gaiztoak; garbitu, ba, oietatik biotza.

3.^a Itzegitez, itsuskeri, gauza lizun edo lotsagañiak itzegiñez ere galtzen da garbitasuna. Pablo Apostolu santuak dic: «Ez gezufa esan: izketa gaiztoz ondatzen dira, gero, oitura onak» Cor. (I XV-33). Berdin edo geiago esan diteke kantu gaiztotaz. Batzuek eta besteak norberarengana, bere buruaren eta besteren sukia edo biztugafi dira; ta oietan naita, esaten edo entzuten dagoan anima eferik gelditzen da.


Intza'r Damaso An.



Friburgo'ko Apolinar A. Kaputxinoa; Zoriondun befia.
(Jaiotako 1739'an; hil 1792'an)



Pedro Mari Amerikanoa



RAINDIK eztu ilabete asko Arjentina'tik Napafo'ko efitxo batera gure gizon au etofirik. Gaztea izan: afen, gazterik zartuaren aztarna garbiak ageri zituan bere ile zuri-urdiñetan eta aurpegiko zimufetan. Gazterik Ameriketara joana zan, urte gutxiz diru asko egin, gurasoen ondora itzuli ta jaitetxeko biziera paketsuan bere neke ta txurta-sunarekin irabaziaz gozatzeko ametsak jo-ta.

Itsasoz aruntza zorion bila dijoazen gazte geien-tsuei gertatzen zaien eran, urte luzeak joan ziran gure gizonarendako neke gogofez beterik, dirurik biltzen asteko erarik gabe. Eta bere sasoirik oberena jalkitzen astean, ikaratu zan bere bizitzaren bakartasunaz eta gogoraturik bere etxekoan maitetasun berogafi limufa, bere bizibide mufitza al zuan obekienik salduta etxerako bidea artu zuan.

Efitafak ikusi zutelaik, angelantzeko auts kolorea zuan soñekoz, lepo-koz (korbatas) eta txapel aundiz, ur-kolorezko oñetakoz ta autsargafia jantzirik, makiltxoak eskuan zetofela, guziak uste izan zuten urte onetarako giltzuriñak estalirik zekazkiala «amerikanoak». Eta batzuek eta besteak, aldeko ta ez aldekoak alegiña egin zuten ari muñak jateko. Menditar onak bezala, bazekiten itzalik oberena zugaitzik sendoenaren azpian izaten dala ta gozo dala afen ondoko egonera.

Lenengo igandea, atsegintsua izan zan «amerikanoarentzat», efitxo artan ez baitzan gelditu negar egiten edo bulaña artzen zekian iñor ari ondo-etofia eman gabe, edo beintzat ura ikustera joan gabe; eta bata ikutu bear zuan aren soñekoa, besteak aren zapata gofistak edo beste batek aren erleju-kate panpafona. Baño egun artan basefitar xeken elizkoi aiek gaiztabide aun-

dia ikusi zuten; meza entzuteko goiz artan etofi-beria ez baizan kalean agertu Meza Nagusi ondoreraño; guziak oartu ziran ortaz.

Ostatuko laguntxo artean eta iganderoko emakumen jardunketetan bizi-bizi itzegin zan afoztuaren utsa afitzeko artaz. Ala ere beartsuak gaur ezpada biar aberatsengandik zerbait onik izan dezaketelakoan egin oi duten bezala, auek ere aren utsa estali edo txurikatuz iñork ere etzuan utzi begiramenduz eta loxintzaz ari diosala egin gabe.

«Amerikanoa» gutxi estutzen zan bere aldetik, elizatik atzeratze ortaz efitafak afitzeafen; eta aurki batere etzan oartu, berak egiñaz efia afitzen zanik. Ori ematen du gero egin zuanak. Bere esker ona erakutsi nai izan zuanean, lenengoz Apaiza, sendalaria ta alkatea ikustera joan zan-eta. Eta gero ikasi zanaz, Apaizari bere lanbidetan laguntzeko eskeñi zitzaion. Eskeintza ori okertxo zetoñen noski bere siñisgabekeriarekin; eta izatekoz usteezeko aberastasun afek eta bere aundi-uste anpotuak eragin da izan zitekean. Ala irudituzitzaion beintzat Apaiz langileari ta ondoreak agertu zuan etzebilela oker.

Pixkeka-pizkeka «amekariñoa» bere efitafen artean kolkoa zabaltzen asi zan eta ostatuan, bildu aldi oro, azkenerrako arjoa erakutsi bear zuan; asieran kontuz zebilen oraindik, bai bai zekin basefitar aien artean etzitekela nola nai jokatutu. Baño laxter etofi zitzaion bere mozofo edo zatafa kendu beaia.

Pazko-aldi jakiaña bukatzera zijoan. Mutilen arteko nagienak jardun ori atera zuten Jai-aufeko afatsean. Gure mutila an zegoan eta batzuek «amerikanoak» erlijioaz uste zuana atera zuten. Orduan, bat-batean, lotsa galdurik mozofoa bota zuan eta esan zuan: «Emakumekeriak dituk oiek. Ni enauk



(Mena'ren argazkia)

Prantzisko S'ren Zazpigarren Eunurteko Batzorde argiari Arkaya ertilari bikañak auferatu dion irudia Iruña'ko Ayuntamentu goragafiak ontzat emanik goratu nai da S. Prantzisko'ren plazan.

aioztzen eta ez diat Jaunik artzen. Eta nik ez diat Apaiza-beafik¹ nere kontuak Jaungoikoarekin garbitzeko. Meza entzuteagatik ez dezute arto ohea bilduko, ez. Nere dirua egiteko nik ez diat elizara joan beafik izan ere. Eta egunero ufen Arjentinako paperak esaten dutenaz, infernu ori Apaizen asmaketa bat baita; eta il ezkeroz *akabo* baituk guzia.»


Itz aiek kalte gaitza egiten zuten entzuntzalen artean. Ala ere urte artan etzan eñan mutiletatik inor Pazkoz egin gabe gelditu. «Amerikanoari» askotan gogorazten zioten lengo zea; ta onek asko jakin eta asko ibiliarena egiten zuan. Aldiro kirtenkeri ber-berak befituz, aufetik ez ba-zan atzetik erdian edo saietsean, aipatu bear zituan bere burnibidezko tañtsasozko joan etofiak, Buenos Aires'en, Montebideo'n eta Barzelona'n ikusitako gauza afigafizkoak. Eta onekin bere entzulen artean begiragafi egiten zan, aietako inork ez bai-zituan ikusi eñi aundi oietako ta gaurko gizarteko auferapen aundiak; soldaduzkoan ikusi pixka besterik ez baizekiten.

Baño munduko joku-tegi ontan beti izaten burua añako txapelak eta «amerikanoari» ere atera zitzaion bere neufiko bat eta ark uste etzula, bere eñiko txokoan agertu zitzaion ura.

Gizarajo afen esanak jakindurizko egi erantzun eziñaz, eñitafen artean pañagafi egiñik utzi zuan bat atera zitzaion eta baseñitar malukari eder aiek eñan geiagoko pakerik ematen etziotelako, bere bizitza Iruña'ra aldatu bear izan zuan, ez ezaguna bezala, gogoak ematen zion eran antxe bizitzeko.

Beste egun bateko uzten degu, ordea, gertaera polit ori, gure irakurle baretsuok kontu luzegiz etzaitugu aspertu erazi nai ta.

Legateko Artzaia



Antziñako argizarizko selu dotore-dotorea

(Agertzekoa—Iruña'ko Uriko Archivo'an)

Zeruko Argia'k begi afean jartzen dizun irudi ori zer dan gal-detzen didazu? Zer esan nai duan sei egalezko aingeru afean be-launiko dagon Prailletxo ofek—zergatik ditun sei egal:—nor dan Praile ori: Intxaur-erdi baten zabalera bildurik bafeatu dan irakur-gai ofek zer esan nai duan.

Irudi ofek dakar; Iruña'ko Prantziskafen Etxeak orain eunki (mende) batzuek zuan selua. Au zintzilika daraman agiria, Napa-fo'ko Efege Enrike Jaunak Iruña'ri emandako fuero batzuek egizta-tzeko egiña da, eta 1270-gaen urteko Epailaren¹ (Martxo) 1'ean emana dago. Praile Txikien (1) Zaintzañeak (Guardianak) eta Predikalarien Lenenkariak beren vidimus'ekin egiztatua dago; be-

(1) Txikien=Menores.

roien seluak dauzka zintzilika. Gureak esaten du: «S. (1) Guardiani Pampilonensis—Iruñako Zaintzalearen selua.»

Irudi oiek, Prantzisko deuna zauriak ezartzean agertzen dute. Buenaventura deunak Santuaren bizitzan (13-gr. buruan) esaten digu:

«Agofako Gurutze santuaren Jai-inguruan mendian otoitzean zegola, zeru-goitik jeixten ikusi zuala, oñaztura bezain laxter, sei egalezko serafin antzeko bat; aren esku ta oñak gurutzean josirik zeuden. Egalak zituan biekin gorputza estaltzen zitzaiola, bi buru gañean goraturik, eta beste biekin egatzen zala.»

Ertilariak ez dute beti gertaera au izan zan bezain zuzen agertu. Esate baterako Fabriano'tar Gentile'k, Jesukristo batere gurutzerik gabe ta amar egal, bos biñeka zitula. Saseta eta beste batzuek gurutzerik gabe jartzen digute. Badalocchio'ren margoialetan aingeru aupa agiri da.

Ondoreko margolari (pintore) askok bi egal gutxiago ematen dizkiote. Emen ematen dizugun seluan ere ezta agiri gurutzea, ta zauririk ere ez.

Sei egalezko aingerua ez da gauza beria ikonografia'n; VI'gañen eunkian agertzen dira sei egalekiko burutxoak ematen dutela Kosmas Alejandria'ren Topografia'n; Batikanoko Gutuntegian (liburutegia) dago ori.

Ondoreko mendetan asko berdiñak erakutsi litezke; adi bidez, Metz'eko Sakramentario'an, Parisko Efidiko Gutuntegian; Venezia'ko Pala d'oro aipamen aundikoan, bereortako elizako Mosaikotan eta Reims'ko Eliz-buruan.

XV-gañen eunkian Andrea della Robbia'k etzituan aztu irudi aiek.—Sei egalak serafiñen ezaungari dirala, antziñako Dionisio—Athos mendiko Praleak, bere Guia de la Pintura gutunean dakar.

Selu ontan Prantzisko santuak ez dauka bizafik. J. Torriti'ren Mosaiko aomen aundikotan ere, Efoma'ko Santa Maria Aundikotan ez; Giotto'ren margoialetan eta Fra Angeliko'renetan ezta ere, La Robbia'ren edergarrietan ere ez.

Bertagoko margolarietaz ez dago zer esanik.

M'ar F. A.



(1) S. ofek esan nai du sigillum.




Panis angelicus

..........

Pa - nis an - ge - li - cus fit pa-nis ho-mi-num:
Te tri - na Dé - i - tas u - ná-que póscimus



Dat pa - nis cae - li • cus fi - gu - ris tér - mi - num
Sic nos tu ví - si - ta sic - ut te có - li - mus



O res mi - rá - bi - lis! man - dú - cat Do - mi - num
Per tú - as sé - mi - tas duc nos quo tén - di - mus,



Pau - per sér - vus et hú mi - lis.
Ad lú - cem quam in - há - bi - tas A - men



¡GAXOA!

Txoriitxo gaxoa,
elurte gaiztoak
izoztutakoa:
sar nere kolkora.

Ikusi aut bai
aíatsaldean
egatu... jetxi...
elur gañean
estalpe epel bat
arki naiean
egiñalean...

Otzak kukuldu
auelakoan
karikaf zirtziñ
dan mutikoak
elur pilotaz
jo au mokoan
gaur il asmoan...



Efukafizko
ibiñera ura
ezin eraman
nikan bafuan
eta biotza
ia lertuan
nian orduan...

Ego azpiko
odol guzia
ziatu nonbait
aize biziak
jta erdi ilufen
ne-atarian
orain jausi aiz


Txoriitxo gaxoa:
sar nere kolkora
epeldutakoan
juan adin basora
sor-leku gozora.

ZUBIGAR.

IKASI!.. IKASI!..




1.—Zein ederki dabilen
inguma (I) afosartean!
onela da gaztea
elizaren erdian!




2.—Batak beste edertzeko
egiñak dirudite;
bien edertasuna
bik batera ba-daude!




3.—Afosaren eztiak
gozatzen da inguma,
elizaren esanaz
gaztearen anima.



4.—Ingumaren gaxua!
Argizari galdara
ariñ-ariñ dijoa
dir-dir ark itxutu-ta.




5.—Gazte eder, ariña;
ba-ziñeki, gaxua!
inguma bat zerala!
galdaz inguratua!



6.—Or eferik inguma
Uste etzuan lekuan!
Or galdurik gaztea
jostabide zoruan!



Yenchowfu 1926—X—29'an.



ZERUKO ARGI'tar maiteak:

SPALDI, Honkong ezkeru, ez dizuet idatzi. Agian Gergori A'k esan dizute Honkong-Sanghai bitartean izan genduan ekaitz izugafia, eta Shanghai'ko jakingafien diran gauza guziak; nik gerozkoak esango dizkizuet bada. Ufila'ren 15'ean atera giñan Shanghaitik, Yentxufu'ra etortzeko. Eguraldia euritsu; bultzia (trena) edefa, nai ainbat erosotasunakin, naiz egoteko, naiz jan da edateko.

Inguruak zelai-zelai dira; noizean bein besterik, ez dira agiri mendiak, ta oyek ufutian; dena ondo landutako soroa da. Sororik geyenetan luf pila batzuk ikusten ditugu, jabearen etxean ildakoen il-obiak dira, batzutan lapida eta tayu edo afizko irudiakin ornituak. Ura ere soroak ezatzeko ugari.

Naiz auzotan naiz efietan, afiz egindako etxe gutxi ikusten ditugu, eta oyek ere txiki-apalak. Geyenak egosi gabeko lufaz eginak dira. Noiz-beinka pagoda edo jentilen antz edefeko elizaren bat agiri da. Efi aundi geyenak, a fasi edo muraña luze goitiaz inguratuak.

Nankin'en *Jangtsekiang* ibai aundia, ontzietan igaro bear izan genduan, eta gero gau guzia trenaz Yentxufu efi ontaraño. Sei lagun gera: lau Verbi Divini'koak eta gu bi kaputxinook. Geltokian gure zai zeuden, gurekin Kansu'ra joan bear duten iru aita kaputxinoak (bi alemanak eta bestea Ipañ-Ameriketakoak), eta efi ontan dauden beste misionero batzuek.

Emen artzen ditugu zaldi banako gurditxo batzuek. Bi kurpileko gurdy ok oraindik gure bidezabaletan mandazaiak erabiltzen dituzten gurdien antza dute, baña oso txikiak dira; bere bafenean gizon bat bakafa sartu ditekete, eta gurdi-ardatzen ondoan anak dindiliz exerita mandazaia eta beste bat.

Ofelaxe ibili gera Yentxufu'ko kaletan, ařiz-aři kankařeka. Eři au aundia bada ere (30.000 biztanle bai omen ditu), ez uste emengo kafikak Euskalefikoen antza dutenik. Bi aldetara etxe efenkada luzeak baditu eta geyenak dendak, bařan itxuragabeko etxe txikiak, batzuek, telatuaren bi egalak batutzen diran tokian, txalupa antzeko amayera daukate, gudari ta



Kansu'ko misiolariak txinoz jantzita. Ezkeretik eskuira eserita: Lizartza'r Andres A. eta Aldaba'r Gregorio A. Zutik misiolari alemanak.

pizti irudiakin ornitua. Etxe guzia gela edo cuarto bat besterik ez da, aurfeko alde guzia irikitzen dala; an dago lo-gela, denda ta beste etxeko zera guzia. Sukaldea, askok beintzat, bidean, (irola edo komunearen beafik ez da toki ontan, ortarako dago zelai zabala).

Kaletan noiz beinka irudiz ondo ornitutako afizko ate aundi eder batzuen petik igaro bear degu. Alako baten entzuten degu ezkiilen durunda pozgafia; efiko elizaren atarian gaude; antxe dago gure zai, bertako Go-

tzai J.. Eramaten gaitu onek elizara, ta bertan guk meza ematen degun bi-tartean, elizkizun eder bat egiten dute.

Yentxufu'ko eliza au oso edefa da (estilo gótiko), margo politaz mar-goztatua eta *vidriera* edefakin. Igandetan elizkizun xoragafiak egiten dituz-te; meza nagusian dena gergorafez abesten dute, seminarista guziak (eunen bat), denak batera eta goxoki. Gabero efosarioa efezatzen da elizan, Jauna agirian, obetogo esateko, kantatu egiten da; bada txinafak beren otoitz gu-ziak, naiz goiz-afatsekoak, naiz beste guziak, abestuz egiten dituzte. Beren abeskera berezi ofek, gergoriafaren antza piska bat badu, eta batez ere le-taniakoa oso polita da. Yentxufu, Txining eta Taikia'ko elizak (iruetan egon gera) Txina'ko emperadoreak, *boxer'en* guduan ilak izan ziran apaizen or-daintzat bezela egiñak dira. Ikusi degu pagoda bat ere; or ikusten danez, txinafen religioa ez da oso pozgafia; baña gauza ok beste baterako uzten ditut.

Orain emen gaude al degun guzia txineraz ikasten, alik eta Kansu'ra joateko eretia izan arte. Lufalde ortarako bide luzea degu (lau egun trenez eta beste lau aste, lenago esan bezelako gurditxotan), eta bidean lapur as-ko. Aufeko batean, agertu ziran lapufak efi onen inguruan, konbentutik en-tzuten ziran tiro dunbadak, eta gudari batzuk zaurituak izan ziran.

Jainkoaren laguntzakin ondo ibiltzeko ustea degu, zuek gure alde z otoiztu. Ufenarte.

Lizartza A.

ZERUTAR maiteak:

Idazkian agintzen dizuet, guk ikusitako pagodaren befiak bialduko diz-kizuetela. Orain asti pixka bat badaukat, eta oraintxe idatzi nai dizuet, zuen irakurleentzat irakurgafia iruditzen ba zaizute, eta nola bait beste idazkian sartu al badezazute, sartu.

Guk ikusitako pagoda au, emengo misio-étxearen ondoan dago. Ateak irikita zeuden, bafenean ez da inor ikusten eta sartu gera. Pagoda au etxe txiki sail bat da. Lenengo departamentuan, bide zabal bat, bi aldetara iruna gela txiki aterpean dituala; bata besteagandik, orma mee batek aldentzen dituala. Bat ez beste gela guzietan bizpairuna epai edo juizio antzesten dira.

Bakoitzean erdi-erdian, tokirik gorenean, Buda epaikariaren irudia; gizon galanta, bigote luze-eroriakin (txinafen antzera); kokotzetik bera bi-zartxu batzuk, begiak oso idiki ta ikaragafiak, aoa zabal ikaragafia, nor-baiti maldizioka ari balitzaio bezela, edo epai-galdera zofotzak esaten ari balitz bezela; atzetik paretan margoztuak basakatu, txori, gizonak zigorta-tzeko tramakulu ikaragafiak eta abar.

Buda'ren aufetik eskribak beren liburu lumakin; (ok geyenak beintzat, arpegi atsegin-atsegiña ezpadute ere, eztira beste irudiak bezin zofotzak); boferoak, zigortatzeko tramankuluak eskutan. Azkeneko otatik, batzuek gi-zon irudia dute, beste batzuek, gorputza gizonetzkoena izan afen, burua, as-to, zezen da ofelakoena. Eskriba ta boferoak zutik bi lefotan daude.

Bi lefoen erdian, pilare bati lotuta, epaitua izan bear dunaren irudia; batzuk pilareko eraztun bateri ile mototsetik lotuta (gizonezkoak ere ile motots edefak badituzte emen) eskuak ere atzera, ondoan daukan bofero batek, ez-patakin esteak agirian jaftzen dizkiola. Epai batean ikusten da epaitua izan bear duana, *romana* antzeko pixu batean, esku-ankak mototsakin lotuta, zintzilika, beste batzuk arkaitzetatik amilka.

Gelatxo oyetako batean, epayaren ordez denak boferoak dira.

Gela oyetan ezin dira lagun asko sartu: txikiak dira eta iya toki guzia irudiak betetzen dute; sei bat gizon edo ondo sartu ditezke.

Buda epaikariaren afean sukaldetxo batzuk daude, bertan bere ome-nez, intzentsu bezela, ufin gozoko belafki batzuk efe ditzaten; gelatxo oyek bidetik aldentzen dituan ormatxoan ere, berortarako pertzatxo batzuk.

Bafenxeago, bi lefo gelatxoen eta erdiko bidearen afeiko elizatxo bat, toki ori guzia itxitzen duala. An ere beste epai bat, besteen antzekoa, irudi aundiago ta ikaragafigoakin. Alde batera *litera* bat, bafenean beste Buda bat, serio serio prozesiotako edo dagola, eta beste aldera ilak eramateko kutxa batzuek.

Irudi ikaragafi oyei guziai txinar gizaxoak beren eskariak egin bear diozkate, kupitu ditezten eta okefik ez dezayen egin.


Dirudinez, datoñen astean Kansu'ra abiatuko gera. Kansu'ko gure zuzen-bidea auxa da: *VIA SIBERIA, Tsu Tsinchow, Kansu (China) Catholic Mission.*

Egun otan 40 orduak deritzayen jayak izan ditugu. Obispoak lana gotik egin du, Meza pontificala igandean ta aufetik ordu erdi bateko sermoya (iruregoi urte ta geyago ditu). Meza ondorean, nekatutik oeratu zan, baña egun ortan elizara bisitak egiteko ta ufengoen ere meza nagusia entzuteko ta jeiki zan, bañan okefago zegola ta sendakiña deitu dute.

|Yenchowfu 1926—XI—2'an.

Lizartza.





Aita Santua ta gazte katolikoak.

Aurten Gonzaga'ko Luis Donearen jayak dirala ta, 5000 gazte bildu dira Aita Santuaren aŕfean mundu guzitik. Mejiko'tik ere baziran 18 ta Txina'tik 16. Aita Santuak itz egin zienean, goratu zuan asko Luis Donearen garbitasuna ta guzienganako izaten zuan maitasun bizia. Aita Santua España'ko gazteai etofi zitzaieanean, oyek eskatu zioten meza bat emateko España ta Mejiko'ren alde.

Ufrezko medalak.

Orain arte iraun dute Ingletera'n len katolikoek kontra eman ziran legeak. Etziran ofelako legeak gordetzen, ala ere legearen aŕfean etzuten orain iritxi duten azkatasuna. Protestanteak bezela berak ere agertu dezakete nun-nai beren siñismena. Bourne Kardenalak bi ufrezko medala artu ditu Aita Santuarengandik Blundell ta Herbert diputaduentzat. Ofela erakutsi nai izan die Aita Santuak zer poza eman dioten biyak katolikoek alde egin duten lan aundiarekin.

Amari ezin zayo lagundu.

Ikaragafiak dira Mejiko'ko buru Calles ta bere adiskideak katolikoai egunero egiten dizkienak. Nork daki noraño iyoko dan beren gofotoa. Efi batean iltzeko zorian zegoen Eduardo Garcia izena dun jeneral baten ama ta eskatu zion bere semeari apaiz bat ekaftzeko, il baño lenago. Joan zan apaiz baten bila ta esan zion bere amak sakramentuak artu nai zituela, il baño lenago ta etofitzeko. Apaizak erantzun zion legeak etziola ortarako baimenik ematen. Jeneralak esan zion bere gain artzen zuela gertatu zitekean guzia. Orduan sakramentuak eman zizkion bere amari ta andikan laster il zan au.

Au jakin zuanean Calles'ek beregana deitu zion jeneralari, legea nola ausi zuen galdetzera.

Beren efi ta Jaungoikozaleak izan ditezen.

Peru'ko gobernuak, joan dan urtean, agindu du ikastetxe edo eskola guzietan Jaungoikoari lenbizi ta gero Peru'ko banderari agur egiteko, umeak sartzen diranean. Au ta ura asi ziran bereala andik ta emendik esaten lege befi ontaz. Onegatik gobernuak itz egin bear izan zuan befiz gauzak argi jartzeko.

«Batzuek, zion, uste izan dute gobernuak agindu duela otoitiz ori urtearen asierako. Ezta ofelakorik; egunero umeak ikastetxera sartzen diranean Jaunari agur egin bear zayo, Aita gurea edo esanaz, ta gero banderari. Bi maitasun izan bear ditugu beti ta gure efi ta gure Jaungoiko-zaleak izan, ta ortarako txikitandik erakutsi bear zaizkie biyarko gizonai bi maitasun aundi-eder oyek.»

Zergatik ez dira irakurtzen periodiku katolikoak?

Goiko-Amerika'ko gotzai edo obispo batek batzar batean esan du: Oso katoliko asko dira periodiku katolikoak irakurtzen ez dutenak, ezagutzen ez dutelako.

Gaurko egunean egiazko katolikoa izan nai duenak, egunero bere etxera periodiku katolikoa ekafi ta irakufi bear du. Katolikoak au besterikegiten ezpadute ere, sendi edo familietan periodiku katolikoa sartu, gauza aundia egin izango dute.»

«Belen'go Eguna.»

Azkenengo guda edo gafa ikaragafiak efi guziaz ekafi dizkien kalteak ikusita, Europa'ko efi aundien buruak *pakea* bere aotian artu dute ta *pakea* eman nai diete efi guziaz emendik auferako. Ofegatik beren artean ofenbeste izketa ta ofenbeste batzar. Orain Berlin'go periodiku batek esan du urtean egun bat jafi bear litzakela, *pake-eguna* deitutakoa; egun ortan jai egingo litzake mundu guzian ta ofela guziaz erakutsi *pakea* maite izaten. Bereala Europa'ko gizon aundiai galdetu die zein egun aukeratuko luketen ortarako ta bakoitzak bere iritzia esan dio. Suiza'ko buruak esan du ezjala egun ofen beafik, beretzat egun ori Belengo eguna dala.

An erakutsi zuten aingeruak nondik etofi diteken efi guzientzat *pake* iraunkofa, esan zutenean: *Pakea* lufean borondate oneko gizonai.

Elizaren etsaiak praleen alde.

1901'gafen urtean Prantzi'ko gobernuak kendu zien prale ta monjai beren konbentuetan bizitzeko eskubidea ta gero 1904'gafen urtean umeai erakustekoa ere. Afezkero Prantzi'tik kanpoan lan egin bear izan dute ta beti al izan duten guzia goratu dute Prantzia. Prantzi'tik Beko Amerika'ra joan diran gizon jakintsu ta Elizaren etsaiak beren begiakin au ikusi dute. Onegatik eskatu diote gobernuari uzteko praleai len bezela beren etxetan bizitzen, Amerika'n ta beste lekutan dauzkaten ikastetxe edo eskolai begiratu ta beste befiak egin ditzaten ta ofela zabaldu Prantzia'ren izena.

Lepradunen artean.

Culion esaten zaion ugartean (isla) il da Jesus'en Lagundiko Millan Aita. Berak eskatuta etofi zan lepradunen artera ta 11 urte egin ditu oyen artean. Apaiz lagun batekin 5.000 lepradunai begiratu die. Azkenengo urtetan, urteko aitoften edo konfesioak 25.000 izaten ziran ta Jaunaftzeak 100.000'tik gora. *Culion* oso beroa da, baño etzan ofegatik Millan Aita ikaratzen; egun batzuetan Jauna eman bear izan zien 200 gaxoai. 11 urte oyetan irabazi duan sari edefa artzera deitu dio Jaunak. Lepradunak ez dute nolanai aztuko beren gaitz ikaragafia gozatzen zien Millan Aita.

Iruña'n Asis'tar Prantzisko'ren Oroigafia.

Zeruko Argia'ren zenbaki berezia artu zendutenak gogoan izango dezute noski, Gure Aitak Iruña'n *pakeak* egin zituala, bertako auzoen artean. Gertaera agoz-ago guganaño etofi au ez aztutzeko ta Asis'ko Eskaletxoaren Zazpigafen Eunurte au gogoan izateko, Iruña'n, Napafoko uri-buruan goratu nai zaio burni orizko bere irudi eder bat. Gure Aitak *pakeak* egin zituan lekuan, gero Prantziskafen komentu ta orain S. Frantzisko'ren Plaza deitzen zaion lekuan goratuko zaio. Beste leku batean ikusi bere irudiaren iixura.

Garagafilaran 6'an goratuko da ori ta ortarako dirua biali naiko dutenak, Kaputxinoen bidez egin dezakete.

Ilabete onen amalaugafen egunean meza bat emango da ZERUKO ARGIAREN irakurle ta ongilen alde, Antonio Santuaren aldarean.